



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA

Industria Sailburuordetza
Proiektu Estrategikoen eta Industria-
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE

Viceconsejería de Industria
Proiektu Estrategikoen eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza

JARRAIBIDEA, PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRATIOAREN ZUZENDARIARENA, IGOGAILUAK ALDIZKA IKUSKATZEKO, GELDIARAZTEKO ETA HUTSAK KONPONTZEKO ARAUBIDEARI BURUZKOA

Euskal Autonomia Erkidegoan, urtarrilaren 28ko 5/2014 Dekretuaren bidez arautzen da igogailuak aldizka ikuskatzeko araubidea. Dekretu horren bidez, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen da. Jasotzeko eta Mantentze Lanetako Aparatuen Erregelamenduko AEM 1 "Izogailuak" jarraibide tekniko osagarrian ezarritakoaren antzera (otsailaren 8ko 88/2013 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), 5/2014 Dekretuak igogailuen ikuskapenean eta mantentze-lanetan jarduten duten agenteen eginkizunak zedarrizten ditu, igogailuetan konpondu beharreko hutsak atzematen direnean jarraitu beharreko prozedura zehazten du eta aldizkako ikuskapenetan aurkitzen diren huts larriak behar bezala eta epean ez konpontzearen ondorioak ezartzen ditu.

Organo honek ohartarazi duenez, operadore juridikoez ez dituzte behar bezala interpretatzen eta aplikatzen 5/2014 Dekretuan jasotako aurreikuspenak, haietako asko ez baitira zehatzak. Horren ondorioz, disfuntzioak sortu dira, eta igogailuak mantentzeko eta ikuskatzeko lanetan parte hartzen duten agenteen erantzukizunak desitxuratu eta nahastu dira.

Organo honek aurretik adierazi dena konpontzeko dituen bitartekoetako bat jarraibideak onartzea da. Izan ere, jarraibideen bidez, administrazioaren esparruan arauak interpretatzeko irizpideak adierazten dira, eta jardunbideak ezartzen, industria-segurtasunaren arloan ordenamendu juridikoa betearazteaz arduratzen diren administrazio-organo eta -unitateentzat.

Azaldutakoa dela bide, otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 13.1 artikuluan ezarritakoarekin eta aplikatu beharreko gainerako xedapenekin bat etorritik, honako hau onartzea ebatzi dut:

JARRAIBIDEA

1. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1.1 Jarraibide honen helburua da zenbait interpretazio-irizpide ezartzea urtarrilaren 28ko 5/2014 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainerako xedapen aplikagarrietan jasotzen den igogailuak aldizka ikuskatzeko araubidearen erregulazioari buruz (5/2014 Dekretuaren bidez, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen da).

Jarraibide honetan jasotako irizpideak Industria Administrazioaren lurralde-ordezkaritzek aplikatu eta aintzat hartu beharko dituzte pertsona titularren, enpresa kontserbatzaileen eta kontrol-erakundeen jarduna ordenamendu juridikoarekin bat datorren zehazteko.

Donostia kalea 1 – 01010 GASTEIZ



1.2 Jarraibide honek, halaber, lurralde-ordezkaritzek eta haiei atxikitako langileek eremu horretan bete beharreko jardunbideak ezartzen ditu.

1.3 Jarraibide hau 5/2014 Dekretuaren aplikazio-eremuan jasotako igogailuei aplikatuko zaie (5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzen duena).

2. HUTS LARRIAK KONPONTZEA

2.1 Gehienez, 6 hilabeteko epea dago aldizkako ikuskapenetan aurkitutako huts larriak konpontzeko. Huts horiek konpontzen direnean, igogailuaren titularrak edo, haren izenean, enpresa kontserbatzaileak hala jakinaraziko dio kontrol-erakundeari.

Enpresa kontserbatzaileak aldizkako ikuskapenetan aurkitu diren hutsak konpondu direla egiaztatuko du, eta hala jakinaraziko dio ikuskapena egin zuen kontrol-erakundeari, Eusko Jaurlaritzaren barruan industria-gaien gaineko eskumena duen sailak horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bidez.

2.2 Nahiz eta aurreko 2.1 azpiapartatuan aipatzen den jakinarazpena 6 hilabeteko epean egiten ez den, kontrol-erakundeak instalazioa ikuskatzeko bigarren bisita egin beharko du. Ikuskapen-bisita hori hutsak konpontzeko 6 hilabeteko epea amaitu baino 5 egun igaro baino lehen egin beharko da.

2.3 Bigarren ikuskapenaren emaitza Administrazioari jakinarazi beharko zaio, gehienez ere 15 eguneko epean, ikuskapen-bisita egiten den egunetik hasita.

Gehieneko epe hori 24 ordukoa izango da, bigarren ikuskapenean ikusten bada hutsak konpondu ez direla eta, horren ondorioz, igogailua geldiarazi behar dela.

2.4 Kontrol-erakundeak ezin badu epearen barruan egin bigarren ikuskapen-bisita ezinbesteko arrazoiengatik, edo instalazioaren titularrak edo enpresa kontserbatzaileak oztupoak jartzen dituelako edo lankidetzak ukatzen duelako, erakundeak berehala eman beharko dio horren berri Administrazioari. Komunikazio hori bigarren ikuskapen-bisita egiteko 2.2 azpiapartatuan aurreikusitako epea amaitu eta 24 ordu igaro baino lehen egin beharko da.

Apartatu honetan aurreikusitakoa betetze aldera, Administrazioari igortzen zaion jakinarazpenean behar bezala zehaztu beharko dira bigarren ikuskapen-bisita egitea eragozten duten arrazoiak, bai eta aipagarriak izan daitezkeen beste inguruabar guztiak ere.

2.4 azpiapartatuan aurreikusitako kasuetan, ulertuko da ez direla konpondu lehenengo ikuskapenean aurkitutako huts larriak, kontrakoa frogatu ezean, eta, beraz, hurrengo apartatuetan ezarritako moduan jardungo da.

3. IGOGAILUAK GELDIARAZTEA

3.1 Bigarren ikuskapen-bisitan kontrol-erakundeak egiaztatzen badu ez direla konpondu lehen ikuskapenean aurkitutako huts larriak, igogailua geldiarazteko agindu beharko du.

3.2 Instalazioaren titularrari eta mantentze-enpresari dagokie kontrol-erakundeak emandako geldiarazteko neurria betetzea.

3.3 Geldiarazteko neurria benetan bete dela ziurtatzeko, instalazioaren titularrak eta enpresa kontserbatzaileak bertan egon behar dute bigarren ikuskapena egiten denean. Haietako baten bat edo bat ere bertan ez badago, kontrol-erakundeak behar bezala jasoko du aktan, eta 3.6 azpiapartatuan aurreikusitako moduan jardungo du.

3.4 Instalazioaren titularrak eta enpresa kontserbatzaileak sinatu behar dute kontrol-erakundeak egiten duen bigarren ikuskapen-bisitaren akta, baldin eta ikuskapenean bertan badaude.

Titularrak edo enpresa kontserbatzaileak akta sinatzen ez badu, kontrol-erakundeak modu frogagarrian egiaztatu beharko du akta igorri diela akta egin zen unean sinatu ez zutenei.

3.5 Aktan, kontrol-erakundeak adierazi ahal izango du igogailua zerbitzutik kanpo geratu den, geldiarazteko neurriaren ondorioz.

3.6 Bigarren ikuskapen-bisitara Instalazioaren titularra eta enpresa kontserbatzailea bertan ez badaude, kontrol-erakundeak aparatua zerbitzutik kanpo geratzen dela egiaztatuko du; horretarako, sare elektrikotik deskonektatuko du, eta ikusizko ohartarazpenak jarriko ditu sarrerako ateetan, kabinan eta makina-gelan, igogailuaren egoeraren berri emateko.

Kontrol-erakundeak bere kabuz ezin badu aparatua zerbitzutik kanpo utzi, horren berri emango dio Administrazioari, ikuskapenaren emaitza jakinarazten dion unean bertan.

4. IGOGAILUAK ZERBITZUTIK KANPO JARRI DIRELA EGIAZTATU DEN KASUETAN IGOGAILUAK GELDIARAZTEA BERRESTEA

4.1 Kontrol-erakundeak Administrazioari jakinarazi badio igogailua zerbitzutik kanpo geratu dela, lurralde-ordezkarri eskudunak ebazpena emango du aparatua geldiarazteko agintzeko.

4.2 Lurralde-ordezkarriak erabakitako geldiarazteko aginduak ondorioak izango ditu, harik eta igogailua geldiaraztea eragin zuten akatsak konpondu arte. Aurrekoa gorabehera, administrazio-organo edo organo judicial eskudunak errebokatu edo deuseztatu ahal izango du agindu hori, ezarritako prozeduraren arabera.

4.3 Igogailua geldiaraztea agintzen duen ebazpenean berariaz jakinarazi beharko da zer administrazio-errekurtso aurkez dezaketen interesdunek ebazpen horren aurka.

4.4 Inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, lurralde-ordezkaritzako enplegatu publiko batek interesdunari zuzenean emanez jakinaraziko dio aipatutako ebazpena.

4.5 Apartatu honetan jasotako ebazpena gehienez ere 5 eguneko epean eman beharko da, kontrol-erakundeak bigarren ikuskapenaren emaitza administrazioari jarraibide honen 2.3 apartatuan xedatutakoaren arabera jakinarazten dion hasita.

5. IGOGAILUAK ZERBITZUTIK KANPO JARRI DIRELA EGIAZTATU EZ DEN KASUETAN IGOGAILUAK GELDIARAZTEA BERRESTEA

5.1 Bigarren ikuskapena egin behar duen kontrol-erakundeak Administrazioari jakinarazten ez badio igogailua zerbitzutik kanpo geratu dela epe barruan konpondu ez

diren akats larrien ondorioz, lurralde-ordezkaritza eskuduneko zerbitzu teknikoek instalazioa *in situ* ikuskatuko dute.

Era berean jokatu da 2.4 azpiapartatuan aurreikusitako kasuetan.

5.2 *In situ* egindako ikuskapen horren helburua izango da instalazioa zerbitzutik kanpo dagoela ziurtatzea eta garrantzizkoa izan daitekeen beste edozein alderdi egiaztatzea.

5.3 Bestalde, 2.4 eta 3.6 azpiapartatuetan aurreikusitako kasuetan, lurralde-ordezkaritza eskudunak kontrol-erakundearen lankidetzat eskatuko du, ikuskapena *in situ* egiteko eta aparatua zerbitzutik kanpo uzteko. Era berean, mantentze-enpresa eta titularra bertan egotea eskatu ahal izango du, egokitzat jotzen badu.

5.4 Laugarren apartatu honetan aipatzen den *in situ* ikuskapena 2.3 azpiapartatuan edo, hala bada, 2.4 apartatuan aurreikusitako jakinarazpena egin eta 5 egun igaro baino lehen egin beharko da.

5.5 Lurralde-ordezkaritzako teknikariak behin-behinean aginduko du instalazioaren geldiaraztea, laugarren apartatu honetan aurreikusitako *in situ* ikuskapenaren ondoriozko aktan.

5.6 Instalazioaren titularrak eta enpresa kontserbatzaileak sinatu beharko dute 5.5 azpiapartatuan aipatutako akta, baldin eta bertan badaude akta egiten den unean. Bertan ez badaude, teknikari jarduleak horren berri emango du aktan.

5.7 Teknikariak emandako geldiarazteko behin-behineko agindua behin betiko bihurtuko du dagokion lurralde-ordezkaritza, gehienez ere 5 eguneko epean, instalazioaren *in situ* ikuskapena egiten denetik hasita.

Lurralde-ordezkaritza erabakitako geldiarazteko aginduak ondorioak izango ditu, harik eta igogailua geldiaraztea eragin zuten hutsak konpondu arte. Aurrekoa gorabehera, administrazio-organo edo organo judizial eskudunak errebokatu edo deuseztatu ahal izango du agindu hori, ezarritako prozeduraren arabera.

Igogailua geldiaraztea agintzen duen ebazpenean berriaz jakinarazi beharko da zer administrazio-errekurtso aurkez dezaketen interesdunek ebazpen horren aurka.

Inguruabarrek hala aholkatzen dutenean, lurralde-ordezkaritzako enplegatu publiko batek interesdunari zuzenean emanez jakinaraziko dio aipatutako ebazpena.

5.8 Apartatu honetan jasotako *in situ* ikuskapena ezin bada egin ezinbesteko arrazoiengatik, edo instalazioaren titularrak edo enpresa kontserbatzaileak oztopoak jartzen dituztelako edo lankidetzat ukatzen dutelako, teknikari jarduleak horren berri jasoko du aktan.

5.8 azpiapartatu honetan aurreikusitako kasuetan, lurralde-ordezkaritza dagokion ebazpena emango du.

6. NOLA JARDUN BEHAR DUEN ADMINISTRAZIOAK, BIGARREN IKUSKAPENA EPEAREN BARRUAN EGITEN EZ BADA

6.1 Administrazioak ikusten badu hutsak konpontzeko epea igaro dela baina kontrol-erakundeak ez duela bigarren ikuskapen-bisita egin dagokion epean, edo ez diola jakinarazi ikuskapenaren emaitza, lurralde-ordezkaritza eskuduneko zerbitzu teknikoek *in situ* ikuskatuko dute instalazioa.

Azpiapartatu honetan aurreikusitako kasuetan, lurralde-ordezkaritza eskudunak mantentze-enpresaren, kontrol-erakundearen eta titularraren presentzia eta lankidetzak eskatuko ditu *in situ* ikuskapenak irauten duen bitartean. *In situ* ikuskapenari buruzko aktan jasoko da zein egon diren bertan.

Aurreko paragrafoan aipatutako pertsona guztiak edo batzuk ikuskapenean ez egoteak edo laguntzarik ez emateak ez du eragotziko *in situ* ikuskapena egitea.

Apartatu honetan aurreikusitakoa gorabehera, aipatutako pertsonak erantzukizun zehatzaileak edo bestelakoak izan ditzakete, eskatzen zaizkien arauzko betebeharrak ez betetzeagatik.

6.2 Ikuskapen horren helburuak izango dira instalazioaren arriskua ebaluatzea eta egoki diren gainerako alderdi guztiak aztertzea. Lurralde-ordezkaritza eskuduneko zerbitzu teknikoak igogailua behin-behinean geldiarazteko aginduko du, non eta ez den argi eta garbi alferrikakoa edo desegokia. Horrek ez du eragotziko ikuskapena *in situ* egiten duen funtzionarioak bestelako behin-behineko neurriak ezartzea.

6.3 Bestalde, 6.1 azpiapartatuan aipatutako *in situ* ikuskapena zazpigarren eta hamargarren egunen artean egin beharko da, hutsak konpontzeko aurreikusitako 6 hilabeteko epea amaitzen denetik hasita.

6.4 *In situ* bisita egin eta, gehienez ere, 15 eguneko epean, lurralde-ordezkarik eskudunak, arriskuaren larritasuna eta inguruabarrak kontuan hartuta, ebazpen bat emango du, zeinaren bidez, Industria Segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuaren 26. artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta, igogailuaren funtzionamendua eten beharra ezarriko baitu, harik eta hura zerbitzuz kanpo jartzea eragin zuten hutsak konpontzen diren arte. Aurrekoa gorabehera, administrazio-organo edo organo judizial eskudunak errebotatu edo deuseztatu ahal izango du ebazpen hori, ezarritako prozeduraren arabera.

Azpiatal honetan jasotako ebazpena nahitaez betearazi ahal izango da, hertsapen-isun edo betearazte subsidiario baten bidez, aplikatu beharreko legerian aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, ebazpen horretan erabakitakoa ez betetzeak erantzukizun zehatzaileak edo bestelakoak ekar ditzake.

6.5 Apartatu honetan jasotako *in situ* ikuskapena ezin bada egin ezinbesteko arrazoiengatik, edo instalazioaren titularrak edo enpresa kontserbatzaileak oztupoak jartzen dituztelako edo lankidetzak ukatzen dutelako, teknikari jarduleak horren berri jasoko du aktan.

6.5 azpiapartatu honetan aurreikusitako kasuetan, lurralde-ordezkariek dagokion ebazpena emango du, 6.4 azpiatalean aurreikusitakoaren arabera.

7. ZEHAPEN-ARLOKO ERANTZUKIZUNAK

7.1 Instrukzio honetan aurreikusitakoa gorabehera, instalazioaren titularrak, enpresa kontserbatzaileak edo kontrol-erakundeak erantzukizunak izan ditzakete hutsak ez konpontzeagatik edo instalazioa arauz aurreikusitako moduan ez mantendu edo ez ikuskatzeagatik.

7.2 Organo eskudunak argituko ditu erantzukizun horiek, kasuan kasuko zehapen-prozeduren bidez.

7.3 Instrukzio honen eremuan arau-hauste administratibo diren jokabideak kalifikatzean eta zehatzean, bereziki baloratuko da nolako arriskua eragin duten jokabide horiek, eta nolako ardura eta lankidetzaren erakutsi duten erantzuleek.

8. IGOGAILUEN GELDIALDIA KONTROLATZEA, AUDITORIA- ETA LAGINKETA-PLANEN BIDEZ

8.1 Igogailuen arloan onartzen diren ikuskaritza- eta laginketa-planek mekanismo egokiak ezarriko dituzte kontrol-erakundeek edo Administrazioak igogailuak geldiarazteko emandako aginduak betetzen direla zaintzeko.

8.2 Izaera orokor eta sistematikoa alde batera utzi gabe, aipatutako ikuskaritza- eta laginketa-planek igogailuen kontrola lehenetsiko dute geldiarazteko agindua eman aurretik *in situ* ikuskapenik egin ez bada, jarraibide honen 4. apartatuan aurreikusitako edozein kasu gauzatzeagatik.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri da eguna.

ZIGOR URKIAGA URKIZA

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIA ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIA